

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2016ko 4. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

EAEko ekonomiaren hazkundera %3,1ean kokatu zen urte osoko batez bestekoan. Beraz, 2015eko emaitza bi hamarrenetan gainditu zuen. Hazkunde erritmoak izan duen bizkortzea ezustekoa izan da, zeren eta 2015eko irailetik aurrera Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2016rako egin dituen zenbatespen guztiek 2015ekoa baino hazkunde txikiagoa iragartzen baitzuten, salbuespen bakarra 2016ko azaroko aurreikuspena izan zelarik, ordurako urte osoko datua argi zegoelako. Aldeko emaitza horrek adierazten du EAEko ekonomia aurreikusi gabeko inertziak gozatu dela eta horri esker urte osoan zehar hazkunde tasa altuetan garatu dela. Portaera hori urrun dago Europar Batasunak izan zuen hartatik, 2016an hamarren batzuk gutxiago (%1,9) hazi zelako, azken hiruhilekoetan bilakaera guztiz laua marraztuz. Horiek horrela, 2016rako aurreikusita zegoen moteltzea espero zena baino apalagoa izan zen, lehen hiruhilekoan jasotako %3,3tik azken laurdeneko %2,9ra igaroz.

EAEko BPGaren gorakada batez ere barne eskarian oinarritu da. Aitzitik, kanpo saldoak oso ekarpen txikiak egin zizkion BPGaren gehikuntzari, zeinu positibokoak, hirugarren hiruhilekokoan izan zen bezala, edo zeinu negatibokoak, laugarrenean gertatu zen moduan. Urte osoko terminoetan, hala 2015ean nola 2016an kanpo saldoaren ekarpena BPGaren gehikuntzari hutsala izan zen. Horrek agerian uzten du esportazioen eta inportazioen arteko erlazioa ez dela aldatu, azken horien kopurua zertxobait altuagoa delarik.

Barne eskariak (%3,0) bizitasuna areagotu zuen urte amaieran, hirugarren hiruhilekoan erakutsi zuen nolabaiteko ahultasunaren ondoren (%2,7). Beraren bi osagai nagusiek aurreko emaitzak gainditu zituzten eta antzeko hazkundera izan zuten, %2,9 azken kontsumoaren gastuan eta %3,2, berriz, kapital eraketa gordinean. Urte osoan zehar, azken kontsumoak lortu zuen hazkunderaren erantzulea kontsumo pribatua izan zen, %3,0tik gorako balioak eskuratuta. Hala ere, laugarren hiruhilekoan kontsumo publikoak bultzada garrantzitsua (%3,0) ezagutu zuen, baina gogoratu behar da aldagai horrek gorabehera handiak izaten dituela bere bilakaeran, ordainketen egutegiak baldintzatuta.

Kapital eraketa gordinaren osaerak ia ez zuen inolako aldaketarik izan aurreko hiruhilekoen aldean eta berriro ere ekipamenduan eginiko inbertsioa izan zen agregatuaren bultzagile behinena, urte arteko tasan %6,6 handituta. Gainontzeko inbertsioak, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, aurreko datuari eutsi zion (%1,6). Eraikuntzak azken hilekoetan bizi duen suspertzeak, egitasmoak finantzatzeko dagoen erraztasunak, ekoizteko ahalmenaren erabilera maila altuak eta oraindik onak diren igurikimenez iradokitzen dute aldagai horrek datozen epealdietan ere maila altuetan jarraituko duela.

Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko ekonomiaren bi sektore nagusien arteko orekari atxiki zaio eta bai industriak bai zerbitzuek %3,0aren inguruko gehikuntza zifrak lortu zituzten urte arteko tasan. Manufakturei dagokienez, bi hiruhilekoz jarraian bizkortu du erritmoa, %3,3ra iritsi arte. Eraikuntzaren gehikuntzak, berriz, aurreko hiruhilekoan eskuratutakoa (%1,9) berdindu zuen, baina dagoeneko hiru hiruhilekotan izan ditu gehikuntza nabarmenak.

Zerbitzuek hirugarren hiruhilekoko emaitza (%3,1) berdindu zuten, baina sektorea osatzen duten adarren artean nolabaiteko bat egitea hauteman da. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak berriro leundu zuen bere aldakuntza tasa, oraingoan %3,5ean kokatu arte, aurreko emaitza baino bi hamarren beherago. Aitzitik, administrazio publikoari lotuago dauden jarduerak hiru hamarrenetan bizkortu zuten gehikuntza eta %2,7ra iritsi ziren. Azkenik, gainontzeko zerbitzuak tarteko egoeran (%3,0) geratu ziren, hirugarren hiruhilekoko tasa berdinduz.

BPGaren sendotasuna lan merkatura ere hedatu zen eta enplegua %1,9 hazi zen, bai laugarren hiruhilekoan bai 2016. urte osoan zehar. Gorakada horrek adierazten du azken hamabi hilekoetan lanaldi osoko 16.000 lanpostu baliokide baino gehiago sortu zirela eta 900.000 lanpostuen langa berriro gaudituta dela, lau urte eta erdi beranduago. BPGaren eta enpleguaren konbinaketak itxurazko produktibitatearen irabazia %1,1ean utzi zuen. Datu hori bat dator 1995etik lortu den batez bestekoarekin, baina ingurunean eskuratu diren emaitza apalak nabarmen gaudituta ditu.

2016an zehar, prezioek goranzko joera arina erakutsi zuten. Izan ere, BPGaren deflatoarea lehen hiruhilekoko %0,1etik laugarreneko %0,5era igaro zen, oraindik apala den igoera baita. Beste aldetik, KPIaren urteko batez bestekoa ez zen aldatu 2015arekiko, baina urte amaieran %2,9ra igo zen abenduan, argindarrak eta erregaiek baldintzatuta. Hala ere, gorakada hori iragankorra da eta udaberritik aurrera apalduko da.


Berriki argitaratutako informazioari esker, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreikuspenak eguneratu ditu eta hainbat hamarrenetan goratu du aurreko zenbatespena, 2017ko datua %2,5ean kokatu arte. Halaber, 2018rako lehen kalkulua eskaintzen da orain, aurreikuspen honen arabera %2,2ra iritsiko baita. Beraz, 2016an zehar bizi zen moteltzeko joerak bere horretan jarraituko duela espero da, azken urteetan lagundu duten faktore batzuek bizitasuna galduko dutelako. Beraien artean, petrolioaren salneurria da adierazgarrienetako bat, merkatu beharrean zertxobait garestituko delako. Moneta politikak ez dio bultzada berririk emango jarduerari eta euroaren truke tasa egonkor mantenduko da.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Iazko laugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiaren hazkunde erritmoa finkatu zen eta lehen zenbatespenen arabera BPGaren aldakuntza tasa %3,2an kokatu zen, aurreko urteko emaitza hamarren batean gaindituz. Hazkundearen erritmo on horren oinarrian hainbat faktore daude, hala nola herrialde gehienetako moneta politika laxoa, petrolioaren prezioaren suspertze neurritsua, nazioarteko merkataritzaren bultzada hasi berria eta, herrialde garatu batzuetan izan ezik, inflazioan tentsiorik ez egotea.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



India



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Zehazkiago, 2016ko laugarren hiruhilekoan, ekonomia aurreratuek nahiko hedaldi egonkorra bizi zuten eta azaleratzen ari direnek hobekuntza txikia ezagutu zuten. Izan ere, ELGE erakundearen parte hartzen duten herrialdeak %1,7 hazi ziren iazko azken hiruhilekoan, 2016an zehar jaso zuten erritmoa berdinduz. Hori horrela, AEBek bizitasun nabarmena lortu zuten urte amaieran, baita Japoniak ere, 2016ko lehen hiruhilekotik laugarrenera bitartean hazkunde erritmo laukoiztu zuelako. Erresuma Batuak ere hoherantz egin zuen urtea aurrera zihoan heinean, *Brexitaren* aldeko garaipenaren ondoren moteltzeko joera bizia espero bazen ere. Garapen bidean dauden herrialdeen artean, azaleratzen ari diren Asiako ekonomiek hazkunde tasa handiak erakutsi zituzten. Aitzitik, Amerika Latinoko herrialde esportatzaileak makal ibili ziren, bereziki Argentina eta Brasil, azken hori oraindik tasa negatibotan (%-2,5), urte hasierako datuen aldean hobekuntza garrantzitsua jaso zuen arren.

2016ko azken hiruhilekoan, Txinako ekonomia %6,8 hazi zen, hots, aurreko hiru hiruhilekoetan baino hamarren bat gehiago. Iazko azken hilekoetan bizi zen bizkortze arinak herrialde hartako ekonomiaren bilakaeraz piztu ziren zalantzak uxatzeko balio izan zuen. Hain zuzen ere, kontsumo pribatuaren gorakada sendoak eta bertako gobernuak ezarri zituen laguntza neurri garrantzitsuek hazkunde tasari eustea ahalbidetu zuten, zeren eta esportazioek berriro kendu baitzizkioten hamarren batzuk ekonomia jarduerari. 2016. urte osoan ere, hazkundearen oinarri nagusiak kontsumoa eta inbertsioa izan ziren, Txinako esportazioek %7,7ko beherakada izan zutelako, 2009tik izan duen handiena. BPGaren gehikuntza %6,7ra iritsi zen, munduko bigarren ekonomiak 1990etik inoiz jaso duen txikiena baita, baina Pekineko helburura egokitu zen, %6,5aren eta %7,0aren artean kokatu zelako.

AEBetan, aurreikusitakoa baino makalagoa izan zen lehen seihilekoa, baina ekonomia jarduerak hobera egin zuen iazko bigarren erdian. Kontsumo pribatuak erakutsi zuen sendotasunak eta inbertsio pribatuaren susperraldiak, bederatzi hilekoz jarraian jaitsierak kateatu ondoren hazkunde positiboak berreskuratu baitzituen, kanpo eskariaren eragina konpentsatu zuten, azken horrek hamarren bat kendu ziolako jarduerari. Aurrekoaren ondorioz, BPGa %1,9 hazi zen, urte osoko tasarik gorena baita. Halaber, eta presidentziarako hauteskundeetatik ziurgabetasuna eratorri den arren, lan merkatuaren etengabeko hobekuntza nabarmenak eta soldaten gehikuntzak joera horren luzapena bermatzen dute. Zehazkiago, AEBen langabezia tasa %4,7 zen urte amaieran, azken bederatzi urteko daturik txikiena. Urteko balantzean, BPGa %1,6 hazi zen, 2015ean baino puntu bat gutxiago. Kontsumoan eginiko gastu apalagoak eta inbertsio pribatuaren uzkurdurak azaltzen dute erritmo galera hori.

Japonian, yenak balioa galdu zuen eta iazko azken zatian 117 yen ordaintzen ziren dolar baten truke. Horrek esportazioak bultzatu zituen (%4,4), bereziki Txinara eta AEBetara. Orobat, finantza baldintza egokitzailiek eta enpresen mozkinen inbertsioa areagotu zuten. Aurreko guztiaren ondorioz, Japoniako ekonomia jarduera %1,6 handitu zen. Hala eta guztiz ere,

japoniar ekonomiak ahultasuna erakusten du oraindik, kontsumo pribatuaren hazkunde erritmoa motela delako. Beraz, 2017. urteari begira zalantza ugari daude bertako hazkundearen jarraipenaz. Urte osoko balantzean %1,0ko hazkundera jaso zuen, hots, 2015ean lortutakoa baino bi hamarren gutxiago. Datu positiboa langabeziaren eskutik iritsi zen, 2016an %3,1ean kokatu zelako, azken hogeita bat urteko mailarik txikiena baita.

Europar Batasuneko ekonomiaren hazkunderak, azken urteetan hauteman zen dinamikarekin bat eginez, barne eskariaren bultzadari esker bereziki egin zuen aurrera. Hain zuzen ere, agregatu guztiek ekarpen positiboak egin zizkieten hazkunderari, baina iazko laugarren hiruhilekoan kanpo arloak ere hamarren bat ekarri zion ekonomia jardueraren gehikuntzari. Zehatz-mehatz adierazita, Alemanian soldaten igoerak eta enplegu maila altuak kontsumo pribatua gorarazi zuten eta iheslarien krisiak, berriz, kontsumo publikoa handiagotu zuen. Aurrekoaren ondorioz, BPGa %1,8ra iritsi zen. Frantzia, ekonomia jarduerak ia erritmo berean egin zuen gora urte osoan zehar eta kontsumoaren egonkortasunak eta esportazioen suspertzeak BPGa bultzatu zuten iazko azken hiruhilekoan. Beste aldetik, Erresuma Batua kontsumo publikoaren sendotasunean eta inbertsioaren bultzadan oinarritu zen aurreko hiruhilekoko erritmoari (%2,0) eusteko. Datu horrek adierazten du ekonomia britainiarrak oraingoz ez duela kalte handirik jaso Europar Batasunetik irteteko erabakia hartzeagatik. Hala ere, badirudi kontsumo pribatua hasi dela dagoeneko eragin hori nabaritzen, azken hiru hiruhilekoetan ez duelako %0,8tik gorako hazkunderik eskuratu.

Jardueraren hobekuntza poliki-poliki lan merkatura hedatu zen, 2013ko hastapenetan hasi zuen hobekuntza leunari jarraipena emanez. Izan ere, Europar batasuneko langabezia tasa %8,2an amaitu zuen urtea, 2015eko abenduan zegoena baino zortzi hamarren beherago eta 2009ko otsailetik jaso den txikiena. Beherakada hori 2017ko urtarrilera ere luzatu zen eta %8,1era jaitsi zen. Italiak eta Txiprek bakarrik handitu zuten 2015eko datua. Hoberantz egiten duen arren, langabezia maila oraindik oso altua da eta kontinente zaharrari oraindik 3.800.000 lanpostu baino gehiago geratzen zaizkio berreskuratzeko. Azkenik, prezioek goranzko joerari eutsi zioten, apirilean jasotako %-0,2 hartatik, eta abenduan %1,2ra iritsi ziren. Energiaren eta, neurri txikiagoan, elikagaien garestitzeak azaltzen du goranzko joera hori, 2017ko lehen hilekoetan ere indartsu jarraitzen duena. Esate baterako, Eurogunearen inflazio tasa otsailean %2,0ra igo zen, hots, Europako banku Zentralak prezioen egonkortasunerako ezarri zuen erreferentziako mailara.

2016ko azken hiruhilekoan, espainiar ekonomiak hazkunde erritmo biziari atxiki zion. Lan merkatuaren hobekuntza nabarmenak eta finantzaziorako baldintza onek kontsumo pribatua bultzatu zuten eta aurreko hiruhilekoko datua berdindu zuen. Orobat, enpresarien konfiantzaren hobekuntzak inbertsioa lagundu zuen. Aurrekoari gehitu behar zaio kanpo eskariaren bilakaera

ona, poliki-poliki protagonismoa irabazi duelako esportazioen bilakaera onari eta inportazioen gehikuntza apalagoari esker.

Hain zuzen ere, BPGa %3,0 hazi zen eta kanpo eskariak zortzi hamarren ekarri zituen. Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek hazkunde tasa positiboak eskuratu zituzten eta bakarrik finantza eta aseguru jarduerak egin zuten behera berriro. Ekoizpenaren datu onek lan merkatuaren bilakaera positiboan islatu ziren. Lehenengo aldiz 1998ko hirugarren hiruhilekotik jarduera adar guztiek enplegua sortu zuten. Aurreko guztiaren ondorioz, enplegua %2,7 areagotu zen. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko 463.000 lanpostu sortu zirela. Halaber, langabezia tasa bizkor jaitsi zen abenduko %18,4ra arte (2017ko urtarrilean %18,2ra iritsi zen), urtebete bat lehenago zegoen tasa baino 2,3 puntu beherago. Kontsumoko prezioek, berriz, gorakada esanguratsua izan zuten 2016ko azken hilekoetan eta irailean tasa positiboak berreskuratu zituzten. Abenduan %1,6an kokatu zen urte arteko tasa, baina 2017ko urtarrilean zein otsailean %3,0ra iritsi zen. Bilakaera hori energiaren garestitzearen ondorioa da eta datozen hilekoetan motelduko dela aurreikusten da.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2015	2016	2016			
			I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	2,6	2,6	3,1	2,7	2,4	2,2
- Familien gastua	2,8	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0
- Administrazioaren gastua	2,0	0,8	1,7	0,7	0,8	0,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1	4,3	3,4	2,6	2,2
- Aktibo finko materialak	6,5	3,1	4,4	3,4	2,6	2,2
- Eraikuntzan	4,9	1,9	2,3	1,8	1,6	1,9
- Ekipamendurako ondasunetan	8,8	5,0	7,4	5,7	4,2	2,6
- Jabetza intelektualeko produktuak	3,6	2,9	4,0	3,2	2,0	2,4
Nazio eskaria (*)	3,3	2,8	3,5	2,9	2,5	2,2
Esportazioak	4,9	4,4	3,8	6,5	2,9	4,4
Inportazioak	5,6	3,3	4,5	5,4	1,0	2,3
BPG (m.p.)	3,2	3,2	3,4	3,4	3,2	3,0
Nekazaritza eta arrantza	-2,9	3,4	5,0	2,7	3,1	2,9
Industria	5,5	2,4	2,7	2,8	1,7	2,2
Eraikuntza	0,2	2,5	2,1	2,0	2,9	3,0
Zerbitzuak	2,6	3,4	3,4	3,6	3,4	3,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,7	4,2	4,8	4,3	4,2	3,6
GOGORATZEKOAK						
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,5	-0,2	-0,7	-0,9	-0,2	1,0
- Enplegua (**)	3,0	2,9	3,1	2,7	2,9	2,7

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estadistika Erakundea (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia %2,9 hazi zen 2016ko laugarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Beraz, egiaztatuta geratu da moteltzeko prozesu batean dagoena, baina prozesu hori aurreikusi zena baino nabarmen leunagoa dela. Izan ere, BPGaren hiruhileko datua argitaratu den bakoitzean Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2016rako aurreikuspenak gorantz berrikusi ditu, aurreko udaberrian kalkulatu zen %2,5 hartatik pasa den azaroko %3,0ra arte. Azken datu hau ere gainditu du argitaratuta dagoen datu ofizialak (%3,1). Horrek guztiak adierazten du EAEko ekonomiak oso onuragarria izan den inertzia izan duela urte osoan zehar eta erritmoa galtzeko oinarrian aipatzen ziren arrazoiek espero zena baino eragin txikiagoa izan dutela. Faktore horien artean, espainiar ekonomiaren hazkundeak bizi duen egonkortasuna nabarmendu behar da (%3,2 hazi zen bai 2015ean bai 2016an), moteltzeko joera bat iragarrita egon arren. Orobat, interes tasen jaitsierak eta prezioen merkatzeak, bereziki kontsumokoena, aiptau behar dira.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016			
			I	II	III	IV
BPG erreal	2,9	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9
Nekazaritza eta arrantza	13,4	1,6	11,6	2,8	-0,7	-7,3
Industria eta energia	3,9	3,3	4,8	2,4	2,9	3,0
- Manufakturen industria	4,7	3,5	4,7	2,6	3,1	3,3
Eraikuntza	0,5	1,6	-0,3	2,7	1,9	1,9
Zerbitzuak	2,9	3,2	3,0	3,4	3,1	3,1
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,5	3,6	3,1	3,9	3,7	3,5
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,5	2,4	2,2	2,4	2,4	2,7
- Gainontzeko zerbitzuak	2,0	3,3	3,4	3,6	3,0	3,0
Balio erantsi gordina	3,1	3,1	3,3	3,1	3,0	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,1	3,1	3,2	3,2	2,9	3,1

Iturria: Eustat.

Aitzitik, herrialde garatu batzuek, batez ere AEBek, aurreikusita baino bizitasun gutxiago erakutsi zuten. Halaber, euroaren truke tasa iazko azken hilekoetan bakarrik ahuldu zen.

Europari dagokionez, aurreikuspenak egiteko orduan kontuan hartu ziren hipotesiak ehuneko handi batean bete dira. Hain zuzen ere, hala Europar Batasunak (%1,9) nola Euroguneak (%1,7) aldakuntza tasa neurritsuak eta egonkorak eskuratu zituzten urte osoan zehar, aurreikuspen ereduetan sartu ziren balioekin bat eginez.

Eskaintzaren ikuspegitik, bai laugarren hiruhilekoko hazkunderan bai urte osoko gehikuntzan azpimarratu behar den ezaugarria EAEko ekonomiaren bi sektore nagusiek, hots, industriak eta zerbitzuek, erakutsi duten sendotasuna da, biek gutxienez %3,0ko aldakuntza tasak eskuratu zituztelako. Horri eraikuntzaren susperraldia gehitu behar zaio, bereziki bigarren hiruhilekotik aurrera gauzatu baitzen, iazko bigarren erdian %1,9ko balioak jasotzea ahalbidetu zuena. Arlo horren barruan, eraikinen atala da bizitasun handikoena (%3,2 nominala), obra zibilarena nabarmen gutxitu zen bitartean (%12,2), Eustatek osatzen duen eraikuntzaren koiuntura indizearen informazioaren arabera.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016			2017	
			II	III	IV	Urtarrila	Otsaila
Industria							
Industria produkzioaren indizea	3,5	2,3	-0,4	1,1	3,4	1,1	---
Industria giroaren indizea	-3,9	-4,8	-2,4	-9,5	-7,6	-5,0	-3,2
Ekoiizteko ahalmen. erabilera (%)	79,7	81,1	81,9	82,6	80,7	---	77,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,3	1,7	1,6	2,0	2,1	2,1	2,0
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-0,1	1,7	2,7	2,9	0,9	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	45,5	-13,4	-16,2	-13,3	-45,8	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	21,1	11,6	20,5	-1,3	2,6	13,6	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,5	0,0	-0,1	-0,3	0,5	1,4	1,8
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	6,5	7,6	7,5	4,8	7,5	9,5	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	8,2	8,9	7,1	6,9	6,6	13,7	---
Hoteletako okupazioa	49,8	53,0	53,4	71,3	47,2	35,4	---
Negozio zifren indizea	4,3	4,6	6,1	3,8	4,7	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	2,5	2,7	5,1	1,8	0,7	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,8	2,2	2,3	1,9	2,1	2,1	2,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren balio erantsiak iazko bigarren hiruhilekoan urte arteko hazkundea galgatu zuen eta horrek zalantzak piztu zituen susperraldiaren jarraipenaz, baina urteko bigarren erdian gero eta bilakaera hobea erakutsi zuen, laugarren hiruhilekoan sektore guztirako %3,0ko tasa eskuratu arte. Orobat, manufakturen atala bakarrik kontuan hartzen bada, lortutako gehikuntza tasa %3,3ra iristen da.

Industriaren balio erantsiaren bilakaera bat dator sektorearen ekoizpenak urte osoan zehar izan zuen norabidearekin, Eustaten IPIak erakusten duenez. Adierazle horrek bizkortzeko joera garbia eskaini zuen urtearen zati handi batean, laugarren hiruhilekoan %3,4ko tasa bat jaso arte. Ekoizkin talde nagusi guztiek aldeko portaera erakutsi zuten iazko azken laurdenean. Esate baterako, energiaren atalak %3,2ko gorakada jaso zuen epealdi horretan, bi hiruhilekoz jaitsi eta gero. Jarduera horretan, ekoizpenaren gorabeherak ohikoak izaten dira, neurri batean enpresa handien erabaki estrategikoek baldintzatuta. Hori bera gertatuko da 2017ko lehen hiruhilekoan ere, denbora horretan Petronorren zati handi bat geldirik egon zelako hobekuntza lanak egiteko. Horrek eragina izango du IPIren datuan, baina ez da ondorioztatu behar sektoreak okerrera egin duela.

Ekipamendurako ondasunen ekoizpenak sendotasun handia (%6,5) erakutsi zuen berriro eta dagoeneko zazpi hiruhileko kateatu ditu oso balio altuak jasoz. Bitarteko ondasunek, berriz, hazkunde motela (%1,8) izan zuten, baina hoberanzko joera batean, bereziki azken hilekoetan. Kontsumoko ondasunei dagokienez, laugarren hiruhilekoa (%2,9) urte osoko onena izan zen eta bizkortzeko joera hori 2017ko hasierara luzatu da, urtarrilean %5,0ko gehikuntza eskuratuta. Kontsumo iraunkorreko ondasunek atzerakada garrantzitsua pairatu zuten iazko erdialdeko hiruhilekoetan, baina azken laurdenean suspertu ziren (%2,5) eta hobekuntza hori aurtengo urtarrilera ere hedatu da (%14,3). Beste aldetik, Kontsumo iragankorreko ondasunek bilakaera egonkorragoa eskaini zuten, iazko bigarren erdian %3,0tik gora kokatuta.

Oro har, industria alorreko enpresen ikuspegia nahiko baikorra da. Energia Ministerioaren datuekin osatzen den industria giroaren indizeak ematen duen informazioaren arabera, 2016ko hasieran oso iritzi onak aurkitzen ziren sektorean, baina urtea aurrera zihoan neurrian baikortasun hori zertxobait ilundu zen Britainia Handian egin zen erreferendumaren (Brexit) eta AEBetako presidente berriaren hautaketaren emaitzak ikusita. Hala ere, 2017ko lehen hilekoetan bilakaera positiboa erakusten ari da berriro, bereziki otsailean. Estatistika horretan, enpresek aitortzen dute eskari zorroa txikiegia dela, baina baikortasun handia adierazten dute ekoizpenaren etorkizuneko joeraz. Azkenik, azpimarratu behar da ekoizteko ahalmenaren erabilera altua dela oraindik, nahiz eta 2017ko lehen hiruhilekoan jaitziera txikia hauteman den aurreko epealdien aldean.

EAEko ekonomiaren beste oinarriak ere, hots, zerbitzuek ere, hiruhilekoko bilakaera dinamikoa eskaini zuen 2016an zehar, beraren balio erantsiaren gehikuntza %3,0tik gorakoa izan zelako behin eta berriro, laugarren hiruhilekoko urte arteko tasa %3,1ean kokatu arte. Halaber, sektorea osatzen duten hiru jarduera taldeen artean bat egiteko joera leuna hauteman zen. Zehazkiago adierazita, merkataritza, ostalaritza eta garraioa berriro izan zen hiruhilekoaren talde dinamikoena (%3,5), baina beste bi hamarrenetan moteldu zuen aurreko balioa. Beste muturrean, arlo publikoari lotuago dauden jarduerak, hau da, administrazio publikoak, hezkuntzak, osasunak eta gizarte zerbitzuek, hiru hamarrenetan handitu zuten beren tasa eta %2,7ko aldakuntza eskuratu zuten. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %3,0ko balioari eutsi zioten, aldaketarik gabe.

Zerbitzuetako balio erantsiak erakutsi duen sendotasuna baieztatuta geratzen da sektore osoa kontuan hartzen duten estatistikak aztertzen direnean. Alde batetik, INEk hilean behin argitaratzen duen zerbitzuetako negozio zifrak egonkortasuna erakusten du 2016ko bilakaeran (%4,6) 2015koarekin (%4,3) alderatuta, nahiz eta hiruhilekoko datuak bigarren hiruhilekoko %6,1etik hirugarreneko %3,8ra mugitu ziren, urte amaieran %4,7an kokatu arte, guztiak tamaina handikoak direlarik. Sektorearen beste adierazle orokorrak ere, hots, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak ere, egonkortasuneko irudia ematen du urteko datuan -2015eko %2,5etik 2016ko %2,7ra igaro zen-, baina INEren zenbakien azpian. Halaber, laugarren hiruhilekoko datua (%0,7) aurrekoak baino nabarmen txikiagoa izan zen, nahiz eta estatistika horrek gorabehera handiak izaten dituen. Sektorearen barruan, ahultasunak hauteman dira txikizkako merkataritzan (%-0,1 laugarren hiruhilekoan) eta garraioan (%-2,7). Aitzitik, bizitasun handia dago ibilgailuen salmentan (%6,7) eta ostalaritzan (%3,1), beste jarduera batzuen artean. Turismoari dagokionez, 2016ko bilakaera oso positiboa izan zen eta urte amaieran gehikuntza garrantzitsuak lortu ziren, 2017ko hasieran jarraipena izan dutenak. Esate baterako, hegazkinez bidaiatu duten pertsonen kopurua %9,5 hazi zen urtarrilean eta hoteletako gaualdiak %13,7 areagotu ziren.


2016ko azken laurdenean BPGa hamarren bat moteldu bazen ere, enpleguaren bilakaera, kontu ekonomikoen terminoetan, aurreko hiruhilekoko baino zertxobait hobea izan zen eta %1,9 hazi zen urte arteko tasan, urte osoan zehar erakutsi duen egonkortasun handiko bilakaera batean. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko ia 16.500 lanpostu baliokide gehiago zeudela 2015eko amaieran zeudenak baino. Horri esker, lau urte eta erdi geroago, berriro gainditu da 900.000 lanpostuen langa.

Enpleguari dagokionez, laugarren hiruhilekoaren ezaugarri nagusia da lehenengo aldiz azken zortzi urte luzean ekoizpen sektore guztiek lanpostuak sortu zituztela. Hain zuzen ere, eraikuntzak 2008tik lehen aldiz bere landunen kopurua handitu zuen (%0,5). Beste aldetik, hala industriak nola zerbitzuek %1,9 areagotu zuten beren enplegua. Lehen kasuan, 3.500 lanpostu


baino gehiago berreskuratzeko balio izan zuen eta zerbitzuetan, berriz, 12.200 enplegu inguru sortu ziren azken urtebetean, guztira 650.000 lanpostu daudela sektore horretan. Azkenik, lehen arloak 462 lanpostu garbi sortu zituen.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Kontu ekonomikoetako enpleguak erakusten duen egonkortasuna 2017ko hasierara ere luzatu da, Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek baieztatzen dutenez. Zehazkiago adierazita, bai urtarrilean bai otsailean afiliazioaren urte arteko aldakuntza tasa %2,0 izan zen, estatistika horrek laugarren hiruhilekoan lortu zuen emaitzarekin bat eginez. Hirugarren hiruhilekoan izan ezik, epealdi horretan moteltzea izan baitzuen, afiliazioaren datuek %2,0ko edo hortik gorako gehikuntza tasak jaso dituzte 2015eko bigarren hiruhilekotik. Interesgarria da egiaztatzea eraikuntzako afiliazioa susperraldia sendotzen ari dela, otsailean %1,8ko igoera eskuratu arte. Zerbitzuen barruan, adar dinamikoek honako hauek dira: hezkuntza eta osasun alorreko zerbitzuak (biak %3,9 hazi dira), informazioa eta komunikazioak (%3,8) eta aisialdirako jarduerak (%5,1). Beste muturrean, jaitsierak oraindik garrantzitsuak dira higiezinaren (%-6,8) eta finantza jardueretan (%-3,8).

Lan faktorearen itxurazko produktibitateari dagokionez, ez da aldaketa esanguratsurik hauteman aurreko hiruhilekoetako emaitzen aldean eta irabazia %1,1 izan zen, 1995etik lortu den batez besteko historikoa berdinduz. Hala eta guztiz ere, 2016ko batez bestekoa %1,2ra

iritsi zen eta zazpigarren urtez jarraian zenbaki historikoa gainditu zuen. Hori are deigarriagoa da kontuan hartzen bada inguruneko herrialdeetan lortu diren irabaziak askoz ere txikiagoak izan direla. Esate baterako, %0,5 hazi zen Espainian, %0,4 Frantzian, %-0,4 Italian, %0,3 Eurogunean eta %-0,1 AEBetan. Aurreko bi hiruhilekoetan bezala, eraikuntzak (%1,4) eta zerbitzuek (%1,2) ezohiko irabazi altuak izan zituzten eta industriak (%1,0) txiki samarra.

Barne eta kanpo eskaria

EAEko ekonomiak erakusten duen sendotasunak barne eskariaren aldetik jasotzen duen bultzadan du jatorria. Aitzitik, kanpo eskariak orekari eusten dio eta oso ekarpen txikiak egiten dizkio BPGaren gehikuntzari, zeinu batekoak zein bestekoak. Izan ere, hirugarren hiruhilekoan kanpo alorreko ekarpena hamarren positibo batekoa izan bazen, laugarrenean tamaina berekoa baina negatiboa izan zen. Are gehiago, urteko batez bestekoan bai 2015ean bai 2016an BPGari eginiko ekarpena hutsala izan zen. Horrek ez du esan nahi kanpo arloak ez daukala garrantzirik EAEko ekonomian. Aitzitik, 2016ko esportazioen eta inportazioen batuketa (ia 93.000 milioi euro) BPGaren %128aren baliokidea da.

Adierazi denez, hazkundeari eginiko ekarpenak kontuan hartuta, garrantzia duen eskaria, hala laugarren hiruhilekoan nola 2016. urte osoan, barne eskaria da (%3,0). Berriro ere, oreka garrantzitsua hautematen da eskari hori osatzen duten bi atalen artean, inbertsioetik datorren bultzada zertxobait handiagoa den arren. Hain zuzen ere, azken kontsumoan eginiko gastua %2,9 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago, baina urte osoko batez bestekotik (%3,0) hurbil. Kapital eraketa gordina, berriz, %3,2 areagotu zen.

Hirugarren hiruhilekoan itxurazko ahultasuna erakutsi ondoren, administrazio publikoen kontsumoa %3,0 handitu zen laugarrenean. Horri esker, 2016ko batez besteko gehikuntza tasa %2,2ra iritsi zen. Igoera hori garrantzitsua da eta osasun eta hezkuntza alorretan agertu diren behar berriek justifikatzen dute.

Beste aldetik, familien kontsumoak moteltzeko joera leunari segida eman zion eta %2,9ko gehikuntza jaso zuen laugarren hiruhilekoan. Aldakuntza tasa hori bat dator BPGak izan duenarekin. Beraz, aurreko bi hiruhilekoetan ez bezala, kontsumoaren hazkundera ekonomiaren gehikuntzara egokitu zen. Irizpide horrek saihesten du zorpetzea handitzea eta kanpo balantza desorekatzea. Enpleguaren gorakada nabarmena, zertxobait igo diren soldatak, inflaziorik eza, ikuspegi historiko batetik oso baxuak diren interes tasak eta etorkizun hurbilari buruz dagoen konfiantza dira familiak animatzen dituzten arrazoietakoa batzuk gastu erabakiak hartzeko.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016			
			I	II	III	IV
BPG erreal	2,9	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9
Gastua azken kontsumoan	2,8	3,0	3,1	3,2	2,7	2,9
- Familien gastua kontsumoan	3,1	3,1	3,3	3,4	3,1	2,9
- Adminis. gastua kontsumoan	1,8	2,2	2,4	2,7	0,8	3,0
Kapital eraketa gordina	2,8	3,3	3,4	3,7	3,1	3,2
- Ekipamendu ondasunak	6,5	7,5	10,7	7,0	6,1	6,6
- Gainontzeko inbertsioa	1,2	1,4	0,2	2,2	1,6	1,6
Barne eskaria	2,8	3,0	3,1	3,3	2,7	3,0
Esportazioak	0,6	2,2	4,2	3,0	1,6	0,3
Inportazioak	0,6	2,2	3,9	3,2	1,3	0,4

Iturria: Eustat.

Kapital eraketa gordinak 2016ko laugarren hiruhilekora luzatu zuen, ia aldaketarik gabe, aurreko hiruhilekoaren osaera. Izan ere, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak bizitasun handiena erakutsi zuen agregatu horren barnean, urte arteko hazkundea %6,6 zelarik, hots, aurreko hiruhilekoko bano puntu erdi bat gehiago. Beste aldetik, gainontzeko inbertsioak, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, %1,6ko bultzadari eutsi zion. Urteko batez bestekoan ere nabaritzen da eraikuntzari lotutako jarduerak bultzada txikiagoa lortu zuela, %1,4 hazi baitzen, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago bakarrik, ekipamenduan eginiko inbertsioa %7,5 handitu zen bitartean (%6,5, berriz, 2015ean). Ekipo zaharkituak ordezkatzeko beharrak eta ekoizteko ahalmena handitzeko nahiak, azken hori oso maila altuan baitago, ekipamenduko ondasunetan inbertsio handiagoa eskatzen dute, baina eraikuntzak oraindik bizi duen susperraldi motelak azaltzen du gainontzeko inbertsioaren ahultasuna.

Ekipamendurako ondasunen inbertsioaz eskuragarri dagoen koiunturako informazioak agregatu horren bizitasuna baieztatzen du. Izan ere, ondasun mota horren EAEko ekoizpenak, zati batean esportatzen baita eta beste zatian tokiko enpresetara baitoa, oso aldakuntza tasa altuak jaso zituen urte osoan zehar, laugarren hiruhilekoan %6,5 hazita. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen inportazioa are gehiago hazi zen, %10,6 2016ko azken laurdenean eta %12,3, berriz, urte osoan batez bestekoan. Aldagai horrek bere ibilbidean gorabehera handiak izaten dituen arren, hiruhileko guztietan oso gehikuntza tasa garrantzitsuak jaso zituen.

Kanpoarekin eginiko merkataritza salerosketak direla eta, laugarren hiruhilekoko ezaugarrietako bat erritmo falta izan zen, hala ondasun eta zerbitzuen esportazioetan nola inportazioetan. Izan ere, bolumenean neurtuta, lehenengoak %0,3 baino az ziren hazi eta bigarrenak %0,4. Bi tasa horiek urte osoko txikienak izan ziren, baina oro har bi aldagai horien ahultasuna azken bi urtean hauteman da. Makalaldi hori ez da bakarrik EAEn gertatzen eta nazioarteko merkataritzan ere begi bistakoa da. Eurotan neurtuta, ondasun eta zerbitzuen salerosketa horiek tasa negatiboak jaso zituzten berriro (%-0,5 eta %-0,4, hurrenez hurren) eta agerian uzten du berriro prezioak bi ataletan jaitsi zirela.

Kanpo merkataritzaren ahultasuna are garbiagoa da analisia atzerriarekin (Estatua kenduta) eginiko salerosketara eta ondasunen esparrura (zerbitzurik gabe) mugatzen bada. Kasu horretan, esportatutakoaren balioa %3,5 gutxitu zen 2015eko laugarren hiruhilekoko balioaren aldean. Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, erregai mineralak ez zuten paper erabakigarririk jokatu aldakuntzaren zeinuan eta bai ondasun horiek bai energiaren bestelako ondasunek urte arteko beherakadak jaso zituzten.

Hain zuzen ere, laugarren hiruhilekoan esportatu ziren erregai mineralen balioa eurotan kalkulaturik %1,9 murriztu zen, aurreko hiruhilekoan jaso zen %55,2ko jaitsierarekin alderatuta oso aldakuntza tasa txikia delarik. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da produktu horrek ez duela joera egonkorrik erakusten eta, aitzitik, oso gorabehera handiak erakusten dituela, sektoreko enpresa handiek dituzten estrategiek eta aukerek baldintzatuta. Beste aldetik, petrolioaren prezioak nazioarteko merkatuetan izan zuen beherakada biziak oso nabarmen eragin du ekoizkin horren bilakaeran. Halere, azken hilekoetan prezioa egonkortu da eta aipatu den eragin hori gero eta txikiagoa da. Izan ere, esportatu zen kopurua %11,1 txikiagoa izan zen eta, beraz, balioaren jaitsiera (%-1,9) adierazten du esportatutako erregaien prezioa dagoeneko hasi dela hazten.

Energiaz bestelako esportazioen bilakaera ere ez zen ona eta beren balioa %3,6 jaitsi zen (tonatan neurtuta beherakada %9,5era iritsi zen), 2014ko erdialdetik jaso den lehenengoa. Salmenten jaitsiera nahiko orokorra izan zen, salbuespenak garraio materiala (%4,2), EAEko esportazioen egiturari pisu gehien duten taldeetako bat baita, produktu kimikoak (%15,6) eta bestelako enpresak izenekoak (%10,0). Beste muturrean, beherakada handiak eskuratu ziren makinak eta tresnak (%-8,3) eta metal arruntak eta beren enpresak (%-12,2) taldeetan. Gainontzeko arantzel taldeek oso jaitsiera murriztu izan zituzten.

Esportazioen jaitsiera ia berdina hauteman zen herrialde aurreratuetan (%-3,1) eta garapen bidean dauden ekonomietan (%-4,8). Horren ondorioz, ekonomia eremu bakoitzean salmentek duten pisua egonkortu da. Izan ere, EAetik atzerrira bideratu diren esportazio guztietatik %80,6

herrialde garatuetara bidali ziren. Krisia hasi zenean, ohiko merkatuak ordezkaturiko zituzten eremu berriak aurkitzeko ahalegina nabaritu zen eta azaleratzen ari diren ekonomien pisua %25era igo zen. Hala ere, potentzia garatuen susperraldiak eta tamaina handia duten herrialde garatu gabeko batzuek ezagutu dituzten zailtasunek ia bost puntutan murriztu dute ehuneko hori.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2015	2016	2016				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-1,3	-1,6	2,4	0,3	-5,5	-3,5	5.530.194
ELGE	1,6	1,0	7,4	3,6	-3,2	-3,1	4.458.238
Europar Batasuna	0,9	0,7	7,6	5,0	-3,7	-5,2	3.545.423
Frantzia	2,4	4,4	7,7	7,9	7,0	-4,2	817.279
Alemania	5,6	-1,4	7,4	3,4	-8,9	-6,8	887.418
Erresuma Batua	6,8	-9,4	-0,6	-6,7	-17,0	-12,2	328.547
Italia	16,9	-9,0	-3,8	-9,9	-4,3	-16,6	266.852
AEB	0,7	-10,5	15,3	-15,0	-28,3	-6,8	418.706
ELGETik kanpokoak	-11,0	-11,8	-16,7	-11,9	-14,1	-4,8	1.071.956

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Herrialde garatuen artean ere ez zen aldakuntza handirik gertatu esportazioen portaeran eta Europar Batasuneko herrialdeen artean jaitziera %5,2ra heldu bazen, AEBetara bideratutako esportazioena %6,8 murriztu zen. Azken kasu horretan, EAEn erosten dituen produktu guztietatik ia erdia erregai mineralak dira eta %11,0ko murrizketa ezagutu zuten. Dena dela, nolabaiteko pisua duten gainontzeko taldeek ere (galdaketa manufakturak, makineria eta ibilgailu automobilak) beherakada garrantzitsuak izan zituzten iazko laugarren hiruhilekoan. Japoniaren kasua guztiz kontrakoa da eta bertan eginiko salmentak berriro bikoiztu ziren (%166,4), baina oraindik kopuru txikiak dira eta automobilgintzan fokatuta.

Europako herrialde nagusien portaera orokorra, esportazioei dagokienez, murrizketarena izan zen. Hirugarren hiruhilekoan portaera horretako salbuespena Alemania izan bazen, laugarrenean herrialde horrek ere EAEko produktu gutxiago erosi zuen. Zehazkiago adierazita, %4,2 gutxiago erosi zuen urte arteko tasan. Merkataritzako harreman hori oso fokatuta dago ibilgailu automobiletan, Alemanian saldutako guztiaren %51 biltzen duelako. Produktu horien

esportazioak aldeko bilakaera jaso zuen arren (%9,3 hazi zen), gainontzeko taldeen jaitsierak balio negatiboetara eraman zuen datu globala.

Frantziak EAEko produktuen hartzaileen lehen postua berreskuratu zuen, nahiz eta urte arteko jaitsiera garrantzitsua (%-6,8) berriro jaso zuen. Herrialde horretara bideratzen diren bi ekoizkin talde nagusiek behera egin zuten laugarren hiruhilekoan, automobilek %4,5 eta erregai mineralek %13,6. Italian eta Erresuma Batuan jaitsierak are handiagoak izan ziren. Lehen kasuan, beherakada %16,6ra iritsi zen eta bigarrenean murrizketa %12,2an kokatu zen. Bi herrialde horietan, gehien erosten diren hiru taldeak berdina dira eta burdina eta altzairu galdaketaren bilakaera (jaitsiera handiak izan zituen) zein makinak eta tresna mekanikoena (hazkunde biziarekin) antzekoa izan zen. Halere, automobilen salmenta indartsu areagotu zen Italian baina nabarmen gutxitu Erresuma Batua.

Dagoeneko aipatu denez, garapen bidean dauden herrialdeen multzoan saldutakoaren balioa %4,8 gutxitu zen laugarren hiruhilekoan. Hala ere, EAEko produktuen hartzaile nagusiak, hots, Txinak, igoera esanguratsua jaso zuen berriro (%28,4). Beraz, lau hiruhileko kateatu ditu jadanik gehikuntza biziarekin, nahiz eta oraindik EAeren atzerriko merkatuaren %2,7 baino ez izan. Herrialde horietatik gehien eskatzen diren produktuak makineria, galdaketa manufaktura eta zur oreka dira. Garrantzia handiena duten hurrengo bi herrialdeak Maroko eta Turkia dira eta bietan handitu zituzten beren erosketak (hurrenez hurren, %66,8 eta %5,5). Lehen herrialdean, garrantzia berezia hartu du erregai mineralen esportazioa (%11,4), bertatik erositako guztiaren herena biltzen baitu. Beste aldetik, Turkiatik nabarmena da burdinbide ibilgailuen eta automobilen gehikuntza sendoa, baina baita makineriarena ere.

Inportazioek beheranzko joera erakutsi zuten urte osoaren zati handi batean, baina laugarren hiruhilekoan bilakaera hori galgatzea lortu zuten balioan neurtuta (%0,1), nahiz eta erositakoaren bolumena berriro murriztu zen nabarmen (%-9,4). Beraz, hemen ere prezioak igo direla nabaria da. Erregai mineralen dagokienez, inportazioen balioa %3,7 hazi zen, baina erositako kantitatea %6,7 gutxitu zen. Gainontzeko produktuetan, jasotako zenbakiak hauek izan ziren: balioan %-1,1 eta tonatan %-14,1.

Epealdi horretan, portaera ezberdina izan zuen jatorri bakoitzak, zeren eta herrialde garatuetatik inportatutakoa berriro murriztu baitzen (%-1,8), aurreko hiruhilekoan baino askoz ere gutxiago (%-18,1) jaitsi ziren arren. Aitzitik, azaleratzen ari diren herrialdeetatik ekarritakoa %5,3 handitu zen. Emaitza horren arrazoi bat erregai mineralen jatorrian gauzatu den aldaketa da, orain Erresuma Batutik (%-34,4) ekarri beharrean, neurri handi batean Errusiatik ekarri zirelako (%41,5), azken herrialde hori berriro izan baita EAEko erregai

mineralen hornitzaile nagusia. Mexiko eta Irak dira sailkapenaren hurrengo bi herrialdeak eta biek oso gehikuntza handiak lortu zituzten, Nigeriaren kaltetan.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2015	2016	2016				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-3,0	-8,0	-7,6	-9,5	-14,4	0,1	4.176.902
ELGE	2,7	-7,7	-10,4	-1,1	-18,1	-1,8	3.004.998
Europar Batasuna	5,5	-8,1	-4,5	-5,0	-16,2	-6,6	2.546.190
Frantzia	20,6	9,5	23,0	9,8	8,5	0,1	690.982
Alemania	11,7	-8,9	-12,0	-5,6	-9,0	-8,9	421.430
Erresuma Batua	15,1	-51,7	-56,6	-38,6	-78,9	-32,0	333.734
Italia	3,5	3,5	-2,5	13,1	4,2	-1,1	227.627
AEB	2,9	-3,9	-41,4	63,4	-30,6	14,1	102.302
ELGETik kanpokoak	-14,4	-8,5	-1,4	-27,0	-5,6	5,3	1.171.904

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europako herrialdeek (%-6,6) eta AEBek (%14,1) erakutsi zuten portaera ezberdinak zerikusia dauka herrialde bakoitzak EAEko erosketen egituraren duen pisuari, non AEBek oso paper txikia baitute, eta inportatutako ondasunen saskiaren osaerari. Azken horri buruz, AEBetatik ekarritako produktu guztien ia %20 erregai mineralak izan ziren, baina hala aurreko hiruhilekoan nola 2015eko laugarren hiruhilekoan, epealdi horrekin egiten baita alderaketa, ehunekoa oraingoa baino askoz ere txikiagoa zen. Europako kasuan, inportazioen beherakada lotuta dago lehenago aipatu den petrolioaren jatorriaren ordezkapenari, batez ere Erresuma Batuari eragin diona.

Esportazioetan gertatu zenetik aldentuta, ELGETik kanpoko inportazioak handitu ziren arren, Txinatik ekarritakoa aurreko urtekoa baino %13,9 gutxiago izan zen eta dagoeneko lau hiruhileko kateatu ditu jaitsierak jasotzen. Herrialde horretan erositakoa oso fokatuta dago makinerian, baina pisu gutxiago duten beste ekoizkin batzuek ere jaitsiara esanguratsuak izan zituzten. Aitzitik, Errusian erositakoaren balioa %21,4 handitu zen, energiako produktuei oso lotuta baitaude (%41,5), beste herrialdeetako inportazioak ordezkatzuz. Brasilen ere oso gehikuntza garrantzitsua lortu zen (%38,4).

Atzerriarekin lortutako ondasunen merkataritza saldoa 1.353 milioi eurokoa izan zen 2016ko laugarren hiruhilekoan. Zenbaki hori tamaina handikoa da, baina iazko gainontzeko hiruhilekoetan bildutakoa baino txikiagoa. Alde batetik, energiaren saldoa, negatiboa baita, 500 milioi eurora igo zen, neurri batean gehiago inportatu zelako, baina baita produktua garestitu zelako ere. Beste aldetik, energiaren bestelako saldoa positiboa izan zen eta 1.853 milioi eurora iritsi zen, aurreko hiruhilekoko emaitzatik oso hurbil. Urteko terminoetan, 2016ko saldo osoa 6.112 milioi eurora heldu zen, serie historiko guztiaren zifrarik gorena delarik. Saldo hori herrialde garatuekin egiten diren merkataritza salerosketetan lortu da, azaleratzen ari diren herrialdeekin EAEk defizita duen bitartean.

Prezioak, soldatak eta kostuak

2016. urtean zehar, prezioak aztertzen dituzten adierazle guztiek goranzko joera garbia erakutsi zuten eta balio positibotan amaitu zuten urtea. Izan ere, eta analisisia BPGaren deflatorearekin hasita, honek igoerei eutsi zien eta bi hamarren gehiago markatu zuen aurreko urteko emaitzaren aldean, %0,1etik %0,3ra igarota, urte amaierako hazkundeetan oinarrituta. Urtean zehar, osagai guztien artean kontsumo publikoaren deflatoreak erakutsi zuen bilakaera nabarmendu zen, tasa negatiboak atzean utzi zituelako eta urte amaieran %1,7an kokatu zelako, azken urteetako daturik altuena baita.

KPI indizeak, berriz, berrikuntza aurkeztu zuen 2017ko hastapenetan, zeren eta urtarriletik aurrera 2016ko oinarrian aurkezten baita. Aldaketa horrek adierazgarritasuna hobetu nahi du, saskia osatzen duten produktuak aldatuz eta haztapen egitura gaurkotuz. Adierazlearen bilakaeran, ordea, ez zen aldaketa garrantzitsurik hauteman eta gainontzeko adierazleek erakutsi zuten goranzko joera bera islatu zuen, azken hilekoetan oso gorakada esanguratsuak jasoz.

Hain zuzen ere, adierazle horrek tasa positiboak berreskuratu zituen abuztuan eta goranzko ibilbide horretan 2017ko otsailean %2,9ra iritsi zen, urtarrileko emaitza berdinduz. Datua errepikatu izanak iradokitzen du inflazioak azken hilekoetan ezagutu duen goranzko joera hori dagoeneko hasi dela leuntzen, petrolioaren salneurri gero eta egonkorragoak lagunduta. Aipatu diren KPIaren balio altu horiek bereziki energia alorreko produktuen bilakaerak baldintzatu zituen, hala erregaienek nola argindarrarenak. 2016. urte osoko batez besteko inflazioa %0,0n kokatu zen, aurreko urtean %0,3ko jaitsiera jaso ondoren.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2016		2017	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (100%)	-0,3	0,0	0,0	1,0	2,9	2,9
Azpiko inflazioa (81,8%)	0,7	0,9	0,9	0,9	1,0	0,7
- Elikagai landuak (14,3%)	1,1	0,9	0,6	0,0	-0,9	-0,1
- Industria ondasunak (24,5%)	0,3	0,8	0,9	0,9	1,0	0,2
- Zerbitzuak (43,1%)	0,8	1,1	1,0	1,2	1,3	0,6
Hondar inflazioa (18,2%)	-4,5	-4,2	-4,1	1,5	12,5	2,2
- Landu gabeko elikagaiak (7,8%)	1,9	2,6	2,7	1,5	6,5	0,5
- Energia (10,4%)	-8,4	-8,2	-8,4	1,5	16,5	1,7

Iturria: INE.

Berriro ere, kontsumoko prezioen bilakaerak petrolioaren salneurriaren ibilbideak indize orokorrean izan duen eragina islatzen du. Hain zuzen ere, Brent motako upelaren prezioak gehikuntza nabarmenak izan zituen iazko azken hilekoetan, LPEEko kideak diren eta erakunde horretakoak ez diren herrialde batzuek ekoizpena murrizteko akordioa adostu ondoren. Hala eta guztiz ere, 2017ko hasieran prezio horiek egonkortasun handia erakutsi dute eta 52 eta 56 dolarren artean kokatu dira, nahiz eta urte arteko aldakuntza tasa oraindik garrantzitsua den. Prezioa, nahi zuten bezala, 60 dolarretara igotzeko orduan, herrialde ekoizle horiek erakutsi duten ezintasuna ulertzeko, neurri batean, petrolioaren ezohiko teknikez erauzten duten enpresek eman duten erantzun azkarra hartu behar da kontuan.

Eurogunean ere petrolioaren garestitzeak inflazioa gorarazi zuen, baina hango igoera EAEn gertatu dena baino txikiagoa da. Zehazkiago adierazita, eremu horretako urte arteko tasa %2,0n kokatu zen otsaila. Hori horrela izanda, EAEn eta Eurogunearen arteko inflazio tarteak une hauetan 0,9 puntukoa da. Alde handienak garraioan, petrolioak eragin ezberdina duelako herrialde bakoitzean, etxebizitzan, argindarraren garestitzearengatik, eta komunikazioetan aurkitzen dira.

Azpiko inflazioaren bilakaera, energiako ekoizkinak eta elikagai freskoak kontuan hartzen ez baititu, urrun dago KPIaren indize orokorrak erakutsi duen hartatik, zeren eta oso bilakaera egonkorra erakutsi baitzuen urte osoan zehar, %0,8aren eta %1,2aren arteko balioak jasoz. Aitzitik, hondar inflazioak oso beherakada handiak jaso zituen urte hasieran, urte arteko tasan,

baina abenduan %3,9ra igo zen. Are gehiago, 2017ko otsailean gorakada hori %12,5era iritsi zen.

Kontsumoko prezioen goranzko joera horretan, garraio eta etxebizitza taldeek izan duten portaera nabarmendu behar da, energiako produktuen garestitzeak beraietan eragin handiena izan duelako. Zehatz-mehatz kontatuta, talde horietako lehenengoak, otsailean, %8,4ko urte arteko aldakuntza tasa izan zuen, erregaien prezioa aurtengo otsailean ez zelako aldatu baina iazko hileko berean merkatu zelako. Etxebizitzak (%5,7), berriz, oraindik nabaritzen du argindarraren prezioaren igoera. Gainontzeko taldeen tasak indize orokorrarenaren azpian daude. Horrek pentsarazten du gaur eguneko tasa datozen epealdietan motelduko dela, behin petrolioaren eragina alderaketatik desagertu ondoren eta argindarraren salneurria maila apalagoetara itzuli eta gero.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	-0,3	0,0	-0,3	-0,6	0,0	1,0	2,9
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,4	1,6	2,4	2,0	1,5	0,5	1,6
Edari alkoholduak eta tabakoa	0,9	0,4	0,3	0,3	0,3	0,5	1,6
Jantziak eta oinetakoak	0,4	0,8	0,5	0,8	0,9	0,9	1,0
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-1,7	-4,1	-5,6	-6,3	-4,3	-0,3	5,7
Etxeko hornidura	0,0	0,5	0,1	0,4	0,9	0,8	0,2
Medikuntza	0,1	1,0	1,0	1,0	1,2	0,7	1,5
Garraioa	-4,1	-1,8	-3,8	-4,2	-1,7	2,6	8,4
Komunikazioak	-1,7	2,6	2,2	2,4	2,5	3,2	1,6
Aisia eta kultura	-0,2	-1,0	-0,3	-2,3	-0,7	-0,8	1,7
Irakaskuntza	2,2	0,6	0,5	0,5	0,5	1,0	1,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,3	1,0	1,2	1,1	0,6	1,2	1,1
Besteak	1,7	1,7	1,8	1,5	1,7	1,9	1,1

Iturria: INE.

Energiako produktuen garestitzeak industriaren prezioetan ere izan zuen eragina. Izan ere, IPRI indizea tasa negatibotan ibili zen 2016. urteko zatirik handiengan, baina urte horretako abenduan %0,7ko urte arteko tasa jaso zuen eta 2017ko lehen hilekoan, berriz, %3,4ra iritsi zen. Industria jarduera gehienek oraindik aldakuntza positibo txikiak eta baita negatiboak ere erakusten dituzte. Portaera orokor horretatik aldentzen den taldea kokeak eta petrolio fintzea

da, ezagutu den azken hilekoan %47,5eko gorakada izan zuelako. Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, energiak (%17,9) bakarrik gainditu du %2,0ko gehikuntzak markatzen duen langa.

Beste aldetik, 2016an indarrean zeuden lan hitzarmenei dagokienez, oro har igoera apalak onartu dira, 2014an eta 2015ean bezala. Hala ere, lan hitzarmenetan adostutako soldatetan goranzko joera leuna hautematen da eta 2015ean, batez beste, sinatu zen %0,6ko igoeraren aldean, iazko batez besteko hazkundea %1,0an kokatu zen. Halaber, urtean zehar sinatutako hitzarmenek igoera zertxobait handiagoa (%1,2) adostu zuten. Are gehiago, 2017an indarrean dauden apurrek soldaten %1,6ko igoera jaso dute, KPIak 2016ko abenduan markatu zuen igoeratik oso hurbil dagoelarik.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,3	0,7	0,6	1,0	1,6
- Urtean zehar sinatutakoak	1,0	0,5	0,8	1,2	1,5
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,3	0,8	0,6	1,0	1,6
- Enpresako hitzarmenak	1,2	0,6	0,6	1,2	1,6

(*) 2017ko urtarrilera arte erregistratutako hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Hala ere, lan hitzarmenetako soldata akordioak ez dira igarotzen ari enpresek aitortzen dituzten lan kostuetara, INEk gai horretaz argitaratzen duen informaziotik eratortzen denez. Izan ere, langile bakoitzeko lan kostu totalak berriro ezagutu zuen jaitziera leuna 2016ko batez bestekoan, oraingoan %0,9. Beraz, dagoeneko hiru urtez jarraian murriztu ditu kostuak. Kostuaren jaitziera hori ez da soldaten atalean (%-1,1) bakarrik gauzatu, gainontzeko kostuetan ere (%-0,3) hauteman delako eta bi kasuetan, gehiago edo gutxiago, portaera hori azken hiru urteetan nabaritu da.

Analisiaren emaitza zertxobait ezberdina da langile bakoitzeko kostua aztertu beharrean lan egindako ordu bakoitza hartzen bada kontuan, nahiz eta kasu horretan ere kostuen moteltzea oso nabarmena den. Izan ere, lan egindako ordu bakoitzeko, 2016ko batez besteko kostua %0,4 baino ez zen hazi. Igoera hori soldaten kostuan (%0,2) baino gehiago gainontzeko

kostuetan (%1,0) gauzatu zen. Langileko eta orduko hautematen den portaera ezberdinaren arrazoa lanaldiaren aldakuntzek azaltzen dute, zertxobait murriztu delako. Zehazkiago azalduta, adostutako lanaldia zertxobait jaitsi zen 2015aren aldean (%-0,6), baina benetan egindako orduak %1,0 murriztu ziren urteko batez bestekoan, iazko bigarren erdian murrizketa are biziagoa izan zelarik. Dena dela, estatistika horren informazioa zuhurtziaz hartu behar da, hiruhileko batetik hurrengora oso aldakuntza tasa esanguratsuak eskaintzen dituelako, hondoko joera ilunduz.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016			
			I	II	III	IV
Lan kostu guztiak langileko	-0,6	-0,9	-1,2	-0,3	-0,7	-1,4
- Soldata kostua guztira	-0,3	-1,1	-1,1	-0,7	-0,7	-1,8
- Bestelako kostuak	-1,5	-0,3	-1,4	0,8	-0,6	-0,2
Lan kostu guztiak orduko	0,1	0,4	2,8	-6,6	3,2	1,9
- Soldata kostua guztira	0,4	0,2	2,9	-7,0	3,1	1,5
- Bestelako kostuak	-0,7	1,0	2,8	-5,6	3,4	3,1
Adostutako lan orduak	0,0	-0,6	-0,9	-0,2	-0,4	-0,7
Benetan egindako lan orduak	-0,7	-1,0	-3,9	6,7	-3,8	-3,2

Iturria: INE.

Aurreikuspenak

Ekonomia hazkundearen aurreikuspenak gorantz berrikusi dira azken hilekoetan, bereziki herrialde aurreratuei dagozkienak. Consensus Forecastsek otsailean argitaratu zituen aurreikuspenek munduko ekonomiaren hazkunde tasa %2,8an kokatzen dute 2017rako eta %2,9an, berriz, 2018rako. Ekonomia aurreratuetan, hazkundera neurritsua baina egonkorra izango da oraindik. Garapen bidean dauden herrialdeetan, hobekuntza garrantzitsuak espero dira, baina aurreko epealdietan lortu zirenak baino zertxobait apalagoak izango dira. Txinako ekonomiaren doikuntza, munduko eskariaren ahultasuna, prezioen maila baxuak eta zerga zein moneta pizgarriak ezartzeko orduan dauden arau murriztaileak dira munduko ekonomiaren hazkundera mugatuko duten faktore behinenak.

Consensus Forecasts-en arabera, AEBetako ekonomia %2,3 haziko da 2017. urtean eta %2,4ra bizkortuko da hurrengo urtean. Beste erakunde batzuk ere bat datoz 2016an jasotako hazkundera baino aurreikuspen baikorragoak aurkezteko orduan eta baita 2017-18 epealdi osorako goranzko zuzenketa egiteko orduan ere. Estatubatuar ekonomiaren eta enpleguaren hazkundera barne eskarian oinarrituko da. Lehengaien prezio apalek hedaldi horretan lagunduko dute, kontsumitzaileei eta inbertitzaileei onura garrantzitsuak ekarriz. Etorkizuneko igurikiminetan eragina izan dezaketen arrisku nagusiak munduko hazkunde ahula eta Fed-ek hartu ditzakeen moneta politikako erabakiak dira. Orobat, Txinaren finantza egoerak gorabehera handiak sor ditzake AEBetako merkatuetan, sektore horretan mundu mailan dagoen harreman estua kontuan izanda, eta ziurgabetasun horrek kalte handia egin diezaike ekonomia eragileei.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Munduko ekonomia	2,5	2,8	2,9	2,5	3,1	2,8
AEB	1,6	2,3	2,4	1,3	2,5	2,3
Kanada	1,3	2,0	2,0	1,5	2,0	2,0
Japonia	1,0	1,2	1,0	-0,1	0,7	1,0
Eurogunea	1,7	1,6	1,5	0,2	1,6	1,4
Europar Batasuna	1,8	1,6	1,6	0,3	1,7	1,7
Alemania	1,9	1,4	1,6	0,5	1,8	1,7
Espainia	3,2	2,4	2,1	-0,2	2,2	1,5
Frantzia	1,1	1,3	1,4	0,2	1,3	1,3
Herbehereak	2,1	2,0	1,7	0,3	1,3	1,5
Italia	0,9	0,8	0,9	-0,1	1,1	1,2
Erresuma Batua	2,0	1,5	1,3	0,7	2,6	2,7
Asia eta Ozeano Barea	4,7	4,7	4,6	1,7	2,2	2,3
Ekialdeko Europa	1,3	2,2	2,5	4,8	5,0	4,7
Amerika Latinoa	-0,5	1,7	2,6	13,8	10,9	8,2

Iturria: Consensus Forecasts (2017ko otsaila).

Eurogunean, datozen epealdietan hazkunde neurritsua espero da. Consensus Forecasts-ek eremu horretako ekonomia hazkunderaz aurkeztu dituen azken aurreikuspenek %1,6ko gehikuntza kalkulatu dute 2017rako eta %1,5, berriz, 2018rako. Europako Batzordeak zertxobait gorantz zuzendu ditu hazkunde tasak, hurrenez hurren %1,6an eta %1,8an utzita bi

urte horietan. Hazkundearen bultzagile nagusia barne eskari pribatua izango da enpleguaren hobekuntzak, soldata nominalen igoerak, finantzaziorako kostu txikiek eta jarduera orokorraren sendotzeak lagunduta. Europako eszenategi makroekonomikoaren gainean hainbat mehatxu daude, hala nola herrialde batzuetan ospatuko diren hauteskundeen emaitzak, iheslarien krisia eta Brexita.

Espainiako ekonomiak moteltzeko joera arina erakutsiko du 2016an jasotako hazkunde tasaren aldean. Consensus Forecasts-ek %2,4ko aldakuntza tasa zenbatetsi du 2017an eta erritmoa %2,1era arte apalduko da 2018an. Beste aldetik, CEPREDEk ezarri dituen hazkunde aurreikuspenak %2,7an kokatzen dute 2017ko datua eta %2,4an 2018koa. Hazkundera barne eskarian oinarrituko da eta kanpo arloaren ekarpena ere positiboa izango da, baina tamaina txikikoa. Prezioek eta interes tasek ustez izango duten igoerak eskariaren gehikuntza galgatuko du.

Lan merkatuaren aldagaiez egin diren aurreikuspenek erakusten dute enpleguaren hazkundera bizia izango dela kontuan hartu diren bi urteetan. CEPREDEk lanaldi osoko lanpostu baliokideez aurkeztu duen aurreikuspenak %2,2an kokatu du 2017ko igoera. 2018rako zenbatetsi duen gehikuntza %1,9an dago. Beste aldetik, langabezia tasa beherantz zuzendu da eta 2017an %17,7ra jaitsiko dela espero da, hurrengo urtean %16,3an kokatzeko.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2017ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017				2017	2018
	I	II	III	IV		
BPG	2,9	2,7	2,6	2,5	2,7	2,4
Kontsumo pribatua	2,8	2,8	2,7	2,5	2,7	2,1
Kontsumo publikoa	-0,2	0,8	1,6	1,9	1,0	1,4
Kap. finkoaren eraketa gordina	2,6	2,3	3,6	3,9	3,1	4,1
- Inbertsioa ekipamenduan	3,5	2,7	4,7	6,0	4,2	5,0
- Inbertsioa landutako aktibotan	-2,9	-3,2	-2,2	0,3	-1,9	3,6
- Inbertsioa eraikuntzan	2,1	2,4	3,1	3,2	2,7	4,0
Barne eskaria	2,2	2,4	2,6	2,6	2,4	2,4
Esportazioak	5,0	5,0	5,3	5,4	5,2	4,9
Inportazioak	3,1	4,2	5,5	5,9	4,7	5,2

Iturria: CEPREDE.

Ingurune makroekonomikoaz dagoen informazioarekin eta EAEko ekonomiaren beraren adierazleak erabilia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiarako taula makroekonomikoa gaurkotu du 2017rako, goranzko bi hamarreneko zuzenketa eginda, eta 2018rako datuak ere zenbatetsi ditu. Aurreikuspen ariketa horren emaitzek seinalatzen dute 2017an batez besteko gehikuntza tasa %2,5ean kokatuko dela eta 2018an, berriz, %2,2ra iritsiko dela.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2017ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017				2017	2018
	I	II	III	IV		
BPG	2,7	2,5	2,4	2,4	2,5	2,2
Azken kontsumoa	2,4	2,2	2,1	2,1	2,2	2,0
Kontsumo pribatua	2,7	2,4	2,3	2,3	2,4	2,1
Kontsumo publikoa	1,2	1,1	1,1	1,3	1,2	1,7
Kapital eraketa gordina	3,1	2,9	3,1	3,4	3,1	3,3
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,4	2,4	2,5	2,5	2,4
Kanpo saldoaren ekarpena	0,1	0,1	0,0	-0,1	0,0	-0,2
Lehen arloa	-1,6	-8,2	-10,6	-7,0	-6,9	-5,7
Industria eta energia	2,1	2,7	2,4	2,7	2,5	2,7
Eraikuntza	1,5	1,3	1,5	1,7	1,5	1,3
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,7	2,6	2,7	2,4
Balio erantsi gordina	2,6	2,5	2,4	2,6	2,5	2,3
Ekoizkinen gaineko zergak	2,9	2,7	2,6	2,4	2,6	2,0
BPGaren deflatoea	0,8	1,2	1,4	1,4	1,2	1,7
Enplegua	1,9	1,7	1,7	1,5	1,7	1,4
Langabezia tasa	12,4	12,2	12,0	11,9	12,1	11,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiaren bultzagile nagusia barne eskaria izango da berriro. Osagai horrek 2,5 puntu ekarriko dizkio BPGaren hazkunderari 2017an eta 2,4 puntu datorren urtean. Enpleguaren alorrean espero den egoera hobek, erabiltzeko errenta altuagoa izateak, oraindik apala den inflazioak, finantzaziorako baldintza onak, interes tasa apalek eta balioa galdu duen txanpon batek baikortasuna ekarri dute ekonomia eragileen etorkizunerako aurreikuspenei. Konfiantza handiago horrek familien gastua kontsumoan eta enpresen inbertsioa areagotuko dute.

Eszenategi makroekonomiko honetan kontuan hartu den denboraldian, barne eskariaren ekarpena etengabea eta esanguratsua izango da. Aitzitik, kanpo saldoaren ekarpena hutsala izango da 2017an eta zertxobait negatiboa, berriz, 2018an.

Ekoizpen arloei dagokienez, jarduera adar guztietan hazkunde orokorrak aurreikusten dira, salbuespen bakarra lehen arloa delarik, gorabehera handiak izaten dituelako. Nekazaritza eta arrantza biltzen dituen adar horrek, aurreikuspen honen arabera, narriadura erakutsiko du kontuan hartu diren bi urteetan. Beste aldetik, industriaren aldakuntza tasa %2,5ean eta %2,7an kokatuko da, hurrenez hurren, 2017an eta 2018an. Eraikuntzak amaiera eman dio doikuntza prozesu luzeari eta hazkunde neurritsua izango du epealdi osoan zehar, baina krisiaren aurrean lortu zituen erritmoetara itzuli gabe. Zerbitzuek ere goranzko ibilbidea finkatuko dute eta sektore horren gehikuntza tasa %2,7ra iritsiko da 2017an. Hurrengo urtean zertxobait motelduko da eta urteko batez bestekoa %2,4an kokatuko da. Zerbitzuak eta industria izango dira EAEko balio erantsi gordinaren adar dinamikoenak.

Ekonomiaren aurrerakuntzak eragin positiboak izango ditu lan merkatuan eta enplegu tasak gora egingo du, langabezia tasak behera egingo duen bitartean. Lan merkatuaren aldagaiei buruz orain aurkezten diren aurreikuspen berriek adierazten dute enplegua %1,7 areagotuko dela 2017an eta %1,4, berriz, 2018an. Tasa horiek esan nahi dute gutxi gorabehera 15.000 lanpostu garbi sortuko direla 2017an eta 13.000 inguru 2018an. Beste aldetik, langabezia tasa %12,1era jaitsiko dela 2017an aurreikusten da eta 2018ko batez besteko tasa %11,7an kokatuko da. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak ezarri duen helburua, hots, oraingo legegintzaldiaren amaieran langabezia tasa %10etik behera egotea, eskuragarria da aldagai horretarako aurreikuspen honetan dauden jaitsierekin.